# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 2634

*404/2019 EBAZPENA, maiatzaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Osasun Mentaleko Erizaintzako Osasun-Prestakuntza Espezializatuko Ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren hautaketa-batzordea.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak urtarrilaren 14an eman zuen 38/2019 Ebazpenaren bidez (otsailaren 1eko EHAA, 23. zenbakia), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Osasun Mentaleko Erizaintzako Osasun-Prestakuntza Espezializatuko ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen.

Ebazpen horren 6. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistema arautzen duen martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 16.3 artikuluarekin bat etorriz, Osakidetzako zuzendaritza nagusiak izendatuko du hautaketa-batzordea.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hautaketa-batzordea izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Osasun Mentaleko Erizaintzako Osasun-Prestakuntza Espezializatuko ikasketaburuaren eginkizunak lehiaketa bidez hornitzeko. Hauek izango dira batzordekideak:

Batzordeburua: Inmaculada Moro Casuso.

1. batzordekidea: Sabino Sarrionaindia Azaola.

2. batzordekidea: Gloria Gutierrez de Teran Moreno.

3. batzordekidea: Jose Manuel Granada López.

4. batzordekidea: Begoña Morales Domaica.

5. batzordekidea: Sebastián Martín Moreno.

Idazkaria: Belén García Sobrón.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.